



aurreikuspena

2010

gipuzkoako udalen **adierazle**
ekonomiko-finantzarioak

> 2010eko uztailaren 1a


Jarraiko datuak Gipuzkoako **54 udalen** 2009ko likidaziotako datuekin osatu dira -**biztanletan %77** ordezkatzan dute-; beste udalen datuak, aldiz, estimatuak dira.



322 MILIOI EUROKO INBERTSIOA 2009an

322 milioi euroko **inbertsio garbia** egin zuten udalek 2009an. 1997-2003 epealdian etengabe gora egin ondoren, 2003. urtean geldialdi bat hasi zuen inbertsio garbiak, 2008ra arte, 2006. urtea salbu (%30eko gorakada izan zuen), 2009an administrazioetatik ekonomia suspertzeko egin diren inbertsioei esker, inbertsio garbiak nabarmen gora egin du.

Inbertsio garbia / bizt.



(1) Inbertsio garbia: Gastuen VI, VII eta VIII Kapitulua ken sarreren VI eta VIII Kapitulua.


ITURRIA: Aurrekontuen likidazioak, eta norberaren egitea.



BIZTANLEKO 457 EURO

Biztanleriari dagokionez, barreiadura maila handia da. 1.000 biztanletik beherako udalerriek egin dute biztanleko inbertsiorik handiena, eta Gipuzkoako batez bestekoaren bikoitza baino handiagoa den per capita inbertsio maila dute.


Inbertsio garbiak biztanleko





LEGEZKO ZORPETZE MAILA NEURRIZKOA DA

2010ean udalen **legezko zorpetze maila** sarrera arrunten %6,78 izan da, hau da, azken 10 urteetako mailan mantentzen da, 2009. urtean salbu.





LEGEZKO ZORPETZE MAILA NEURRIZKOA DA

Adierazle hau biztanleria tamainari dagokionez aztertuz gero, antzeman daiteke 2010eko datuen arabera Donostiako Udala dela zorpetze mailarik altuena duena.


BIZTANLEGOA	ZAMA FINANTZARIOAK	
	%	Euro/bizt.
0-1.000	5,54	74,22
1.000-5.000	6,58	71,19
5.000-10.000	5,31	65,04
10.000-20.000	6,55	82,38
20.000-100.000	6,37	71,34
>100.000	8,11	108,79
GIPUZKOA	6,78	83,35



462 MILIOI EUROKO ZOR BIZIA

2010-12-31n **zor biziaren bolumena** 462 milioi eurokoa izango dela espero da, hau da, 2009ko abenduan zegoena baino pixka bat baxuagoa. Zor bizia sarrera arruntekin konparatuz lortzen den portzentajea mantendu da (%45 inguru), baina bilakaera hori lehen urtean hautsi zen (%53,6), eta aurten mantentzea espero da (%53,2).

Ondorengo grafikoan ikus daiteke azken hamar urteotan zor biziak izan duen bilakaera, bai sarrera arrunten gaineko ehunekoan eta bai biztanleko eurotan.





462 MILIOI EUROKO ZOR BIZIA

5.000 eta 20.000 bitarteko biztanleria duten udalerrien taldeak du zor biziaren bolumenik txikiena; aitzitik, Donostiakoak baliorik handienak ditu zor biziaren adierazleari dagokionez.

BIZTANLEGOA	ZOR BIZIA	
	%	Euro/bizt.
0-1.000	45,24	606,59
1.000-5.000	51,43	556,25
5.000-10.000	37,20	455,52
10.000-20.000	34,09	428,97
20.000-100.000	50,29	563,54
>100.000	81,85	1.097,70
GIPUZKOA	53,21	654,19

462 MILIOI EUROKO ZOR BIZIA

Gipuzkoako udalen zor bizia 2010ean 2009ko maila berdinean ibiliko dela espero da.

Zor horrek sortutako finantza kargak bilakaera berdina izan du.



AURREZKI GARBIA BAT-BATEAN ERORI EGIN DA


2009ko **aurrezpen garbia** diru sarrera arrunten %0,55 izan zen, azken urteetako joera (aurrezki garbia positiboa izatea) apurtuz.

Izan ere, azken hamar urteotako bilakaera aztertuta antzeman daitekeenez, aurrezki garbiak beheranzko bilakaera izan zuen 2002ra arte. Beheranzko joera horren arrazoia zen gastu arrunt ez-finantzarioak 1997az geroztik azkarrago igotzea sarrera arruntak baino. 2003tik aurrera, halere, gastuek handitzeko joera izan arren, sarrera arruntek hazkunde handiagoa izan dute. Beraz, aurrezki garbia apurka-apurka hazten joan da azken urteotan, baina 2008an joera hori bat-batean aldatu da, eta 2009an areagotu.



AURREZKI GARBIA BAT-BATEAN ERORI EGIN DA

Balio absolutuetan, aurrezki garbia 129 milioi eurotik 71 milioi eurora aldatu da 2008 ekitaldian eta 5 milioi eurora 2009. Aurrezki gordina 186 milioi eurotik 70 milioi eurora pasa da 2007tik 2009ra.





AURREZKI GARBIA BAT-BATEAN ERORI EGIN DA


Aurrezki garbiak barreiatze maila handia du udal batzuetatik beste batzuetara. 1.000 biztanletik beherako udalerriek dute aurrezpen garbia sortzeko ahalmen handiagoa. Donostiako Udalak, ordea, balio negatiboak agertzen ditu ratio horretan. Dazkagun datuak kontuan harturik, Donostiarekin batera 24 udalek dituzte aurrezki garbia negatiboak (iazko urtean 11 udal bakarrik ziren). Hori guztia taula honetan ikus daiteke:

BIZTANLEGOA	AURREZKI GARBIA
0-1.000	13,90
1.000-5.000	1,77
5.000-10.000	4,73
10.000-20.000	2,15
20.000-100.000	0,48
>100.000	-3,99
GIPUZKOA	0,55



ZERGA SARREREN HAZKUNDEA

Udalek izandako **zerga sarrerak** bikoiztu egin dira azken hamar urteotan, Gipuzkoako barne produktu gordinarean azpitik haziz.






ZERGA SARREREN HAZKUNDEA

Biztanleriari dagokionez, biztanleko zerga sarreraren baliorik txikiena 1.000tik 5.000ra bitarteko biztanleria duten udalerriei dagokie. Donostiak, ordea, adierazle horren baliorik handiena agertzen du.

Zerga sarrerak biztanleko





OHAR ARGIGARRIA

Hemen erabili ditugun datuak 2009ko ekitaldikoak dira; hau da, krisi ekonomikoaren eragina sumatu den urtea. Aztertu diren ratio guztiak aldaketa nabarmenak izan dituzte, baina denen artean aipatzekoa da aurrezki garbiaren bilakaera, aurten ia desagertu da. 5 udalek dituzte diruzaintza gerakin negatiboak eta 25 udalen aurrezki garbia ere negatiboa izan da (11 udalen aurrezki garbia 2008an).

2010erako aurreikuspenak erakusten digute, 59 udalen aurrekontu datuak kontuan izanik, 2010erako onartutako datuak gutxi gorabehera %10 gutxitu direla, 2009ko aurrekontuekin alderatzen badugu. Bestalde, 2009ko tendentzia jarraituko dute, aipatuz.

-
- o Inbertsioen jaitsiera.

 - o Zama eta zorraren maila mantenduko da.

 - o Aurrezki garbia zero inguruan mantenduko da.

 - o Diruzaintza gerakin negatiboak mantenduko dira.



gipuzkoako udalen **adierazle** ekonomiko-finantzarioak

aurreikuspena
2010

gipuzkoako
go 
ogasuna

aurreikuspena